

## Sartu ikasgunea plataforman posta elektronikoa eta pasahitza idatzita.


Lehen aldia bada, izena eman beharko duzu NA/AIZ (Atzerritarren Identifikazio Zenbakia), egoitza baimena edo HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria) erabilita. Izen ematea egin dezakete adinez nagusia diren ikasleek, edota ikasle adingabeen tutoreek.

Zure kontuan sartu zara, zure profilean zaude


 ikasgunea

Administrazio-prozesuak eta laguntzak > Onarpen eskaerak

“Administrazio prozesuak eta laguntzak” aukeratu

 Hasiera

 Aldatu datuak

 **Administrazio-prozesuak eta laguntzak**

Sarbide Proben eskaera eta lehiaketak

Onarpen eskaerak

Bekak

Ebazpenak

 Espediente akademikoa


 Jakinarazpenak

“Onarpen eskaerak” aukeratu

Menu urdinean agertzen diren ikasketetatik **eskaintza osoa** aukeratu



Jarraian, eskabidea bete norberaren datuak sartuta “datu orokorrak” erlaitzean.



Eskatutako ikasketa bakoitzeko ilara bana idatziko da. Aukeratutako zikloaz gain, hautatu beharko da (aukerak agertuz gero), txanda (goizez edo arratsalde), kurtsoa (1.), eredu (D-euskara, B-mixtoa, A-gaztelania) eta eleaniztuna ala ez.

Datu guztiak sartu ondoren, sakatu “intro/onartu”, eta eskaera osatuta geratuko da (urdinez). Nahi adina ikasketa idatz daitezke. Ordenatuta geratuko dira lehentasunen arabera. Hurrenkera alda daiteke lerroa aukeratuta, eta gora eta behera erabilia ezkerreko geziak laguntzaz.

**Erlaitz honetan sistemak eskatutako dokumentazioa igo behar da, eskaneatuta;** SALBUETSITA agertuz gero, horrek esan nahi du dokumentazioa hezkuntza sailaren esku dagoela dagoeneko, eta ez dagoela igo beharrik. Ziklorako sarbidea ematen duten ikasketak egiten ari bada, atal hau hutsik geratuko da zuzenean igoko baita, ikastetxeek aktak itxi ahala (ekainaren 28aren aurretik).

Datu Orokorrak

Eskatutako ikasketak

Baremazioa / Dokumentuak

Korrespondentzia hizkuntza: Euskara ▼

### Dokumentazioa

Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Aurkeztuta	Balioztatu
(*) NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia		<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Ez balioztatuta <input type="radio"/> Balioztatuta <input checked="" type="radio"/> Zuzentzeko zain <input type="radio"/>

### Baremaziorako datuak

Sarbide mota  
Ziklo bereko aurreko mati ▼

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Aurkeztuta	Balioztatu
<b>Baremazio irizpideak: OROKORRAK</b>						
Titulación de FP GM EMko LHko Titulua	<span style="border: 1px solid #ccc; padding: 2px 10px;">LOE-Plan'</span> <span style="font-size: 0.8em;">▼</span>					
Nota para GS GMko nota	<span style="border: 1px solid #ccc; padding: 2px 10px;">5,64</span>	(*) Fotocopia (*) Goi mailako ikasketen espedientearen fotokopia		<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Ez balioztatuta <input type="radio"/> Balioztatuta <input checked="" type="radio"/> Zuzentzeko zain <input type="radio"/>

Gorde
Itzuli
  
Inprimatu

## **OSO GARRANTZITSUA, eskaera bete ostean, sakatu BIDALI, betiere maiatzaren 24a baino lehen, bestela prozesutik kanpo geratuko da eta.**

Eskaeraren egoera berrikusi behar da:

- Eskaera BIDALTZEKO ZAIN. Eskaera eginda dago, baina “Bidali” tekla sakatu gabe dago oraindik.
- Eskaera BIDALITA/AZTERTZEN. Lehen aukerako ikastetxera bidali da eskaera, eta aztertzen ari da.
- Eskaera DOKUMENTUAK EKARTZEKO ZAIN. Eskaera bidali da, baina oraindik ez dira kargatu baremaziorako datuak (ikasketa espedienteko nota).
  - Garai berean, ziklorako sarbidea ematen duten ikasketak egiten ari bazara, nota zuzenean kargatuko zaizu, ikastetxeak aktak itxi ondoren.
  - EAetik kanpoko ikastetxe batean ikasten ari bazara, ekainaren 28ra arteko epea daukazu dokumentuak idazkaritzan aurkezteko.
- Eskaera OSATUA. Eskaera osatuta dago eta onarpen prozesuan sartuko da.

**Ekainaren 28an, eskaera GUZTIEK beren egoeran OSATUA adierazi beharko dute baremazio-onarpen prozesuan sartzeko.**